

K3 – iLAB - HERRITARREN PARTE-HARTZEA BERRITZEKO LABORATEGIA

1. FASEA: 2018-2019

- 1) **Entitate / pertsona parte-hartzaileak (adierazi entitate publikoen eta pribatuen %a eta emakumeen eta gizonen %a)**
 - Konpromiso-taldea: 27 lagun – % 60 emakumeak, % 40 gizonak // % 22 herritarrak, % 41 erakundeak, % 37 adituak
- 2) **Konpromiso-taldeak eta foro irekiak egindako bilerak (adierazi bilera-kopurua eta parte-hartzaileen zenbaketa orokorra)**
 - Konpromiso-taldea: 8 lan-bilera // Parte-hartzaileak: 21+22+16+18+14+17+14+19 (141)
 - Foro irekia Saio 1 - 80 lagun, % 50 emakumeak, % 50 gizonak
- 3) **Orain arteko mugarri/entregagai nagusiak (estekak jarri)**
 - Benchmarking – Jarduera onen analisia, tokiko eta nazioarteko mailan
 - iLab-en kontzeptualizazioa
 - Eredu pilotuen galdetegiak
 - K3ren prozesuaren azalpen-bideoa
- 4) **Orain arteko zailtasun nagusiak (adierazi zein izan diren eta nola jorratu diren)**
 - iLab-en kontzeptualizazioa – proiektuaren irismena eta fokua (sare-formatua). Aurreikusitakoak baino saio gehiago egin behar izan ziren konpromiso-taldean ados jartzeko.
 - Erakunde guztiek hartzen dute parte konpromiso-taldean (askotariko ikuspegi instituzionala txertatu behar da), eta Donostiako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia batu dira; Gasteizko Udala falta da batzeko.
 - Erakundeetan abiapuntu-dokumentuen inguruan barne-mailan eztabaidatzeko denbora eskasa dago – Hauteman egin da, eta proposamenak aurretik bidaltzeko neurriak hartuko dira 2. fasean (enpresa dinamizatzaileak proposamen bat garatuko du).
 - Edukiak konplexuak dira, eta, beraz, komunikazioak zailtasunak dauzka – Foro irekian hauteman da, eta, jorratzeko dagoen arren, komunikazioa lantzeko eta edukiak soiltzeko kontratazio bat egingo da seguruenik.
- 5) **Kronogramaren betetze-maila (adierazi aurrerapenak, OGPri emandako konpromiso-fitxan azaltzen denaren arabera)**
 - Atzerapena fitxaren lehenengo 3 jomugetan (1-mapaketa, 2-kontzeptualizazioa eta 3-gobernamendua), 2018ko otsailean amaitzea baitzegoen aurreikusita. Lehenengo biak amaituta daude, eta gobernamendua oraintxe bertan ari dira eztabaidatzen (lehenengo eztabaida-proposamen bat egin zen, kontzeptualizazioaren ingurukoa, eta konpromiso-taldean ikuspegi ezberdinak sorrarazi zituen; hortaz, adostasun handiagoa egote aldera, gehiago lantzea erabaki da).
 - 4. jomuga – 2019rako (martxorako) bi pilotu identifikatzea. Atzeratu egin zen, bai irizpideak lantzeko, bai pilotu posibleak modu irekian identifikatzeko (galdetegia diseinatu eta proposamenak bidali eta jaso). Uztailean, 2019ko bi pilotuak itxi ziren: GFA – Aurrekontu parte-hartzaileak eta osasuna (Eusko Jaurlaritza) – Prozesu parte-hartzaileen ahal salutogenikoa. 5. jomuga, 2019ko bi pilotu betearaztea – Exekuzioa atzeratu egin da, eta OGP Plana itxi arteko epea dauka (2020ko uztailean).

- 6. eta 7. jomugak – 2020rako pilotuak identifikatzea eta egitea – Getxoko, Bilboko eta Muxikako Udalekin hitz eginda.
- 8. jomuga – Ebaluazio parte-hartzailea – 2020ko urtarrilerako aurreikusi da (ez da hasi).
- 9. jomuga – Orokortzeko orientabideak – eta 10. jomuga – Instituzionalizazioa. Oraindik ez da lan-paketeetan edo hasiera-gailuetan lan egin, baina erakundeak ados jartzeari begira ari dira lanean, fase hau errazte aldera. Pilotuen gardentasun-elementuek fase honetan ere lagundu beharko lukete.
- 11. jomuga – Hedapena eta ikusgarritasuna – Kontuak egunean edukitzeko bi buletin bidali dira iLab-en kontaktuen datu-basera, foro irekia egin da, ondorioak bidali dira, eta bideoa nahiz prozesuaren laburpen-diagrama egin dira. Indartzeko eremua.

6) Pilotuen egoera – hala badagokio – (erakunde parte-hartzaileak eta proiektuen xedeak)

Aurrekontu parte-hartzaileak, GFA buru – S&F enpresari egin zaio kontratua.

- Pilotuaren xedeak: Euskadin (tokiko fokua) aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzeko eta betearazteko askotariko eredu instituzionalak aztertzea eta ebaluatzea, modu parte-hartzailean, Euskadiko beste udalerrri batzuetara eraman daitezkeen ikaskuntzak eta elementuak ateratzeko. Arreta honako hauetan jarriko da: 1) Aurrekontu parte-hartzaileen benetako ahala eta ekarpena, parte hartzeko gaitasun handiagoak sortuko dituen tresnatzat hartuta – Herritarrek aktibatzea; 2) Konfiantza eta hizkuntza komuna sortzea – Prozesuen mugen gaineko ezagutza handiagoa, komunikazio-estrategia eta hizkuntzaren egokitzapena, adostasunak...; 3) Aldaketa instituzionala – Prozesu parte-hartzaileen emaitzen inpaktuak (eraginkortasun-terminoetan) edo emaitzen kudeaketa publiko hobea.
- Esperotako emaitzak: 1) Transferentzia-elementuak identifikatzea, aurrekontu parte-hartzaileen tresna hobetzeko, lehen azaldutako irizpideen arabera – *Zer transferitu // 2) Transferentzia-mekanismoak identifikatzea – Nola transferitu // 3) Aztertutako kasuen inpaktuari buruzko txostena. Txostenean guztia sartuko da: ez da kasu bakoitzaren txosten bat egingo. 4) Ebaluazio parte-hartzailearen prozesuaren kontakizuna – *Pilotuaren komunikaziorako edukiak.**
- Gaur egungo egoera:
 - Bost udal parte-hartzaile identifikatu dira aurretik: Mungia, Santurtzi, Amurrio, Hernani, Donostia / Irun
 - Bost udalei egin zaie diseinatutako galdetegia, elkarrizketa sakona egin aurretik

Prozesu parte-hartzaileen ahal salutogenikoa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila buru – Solasgune enpresari egin zaio kontratazioa (HHABHZren eskutik)

- Pilotuaren xedeak: prozesu parte-hartzaileen ahala neurtzea eta ebaluatzea, komunitateetan osasun pertsonal eta kolektiboa sortzeko. Horri begira, udalerrri batean esku-hartze komunitario bat egitea proposatu da (talde motorra, osasun-aktiboen mapaketa, herritarren gaitasunen aktibazioa, proiektu partekatuen identifikazioa...), eta herritarrek prozesu parte-hartzailea ebaluatzeko tresna bat garatzea (kontu-ematea). Bada, prozesu parte-hartzaile batek (jatorrian osasun-ikuspegia edukia ala ez) komunitatean eta pertsonengan ongizatea eta osasuna sortu dituela baieztatu ahal izateko adierazleak modelatu eta zehazteko balioko dute eredu honen ondorioek,

dagoeneko osasuna sortzen duen prozesu komunitario bat garatu duen udalerrri baten esperientzia eta transferentziarekin batera.

- Esperotako emaitzak: 1) Prozesuek osasuna sortzen duten ala ez baieztatzea ahalbidetzeko adierazle-sistema, 2) osasun-aktibo komunitarioen mapaketa eta proiektu kolektiboen diseinua, 3) herritarrek ebaluazioa egiteko tresna.
- Gaur egungo egoera:
 - Talde motorra eratu da: proiektuaren jarraipena eta osasun-adierazleak zehazteko oinarriak (udalerrri parte-hartzaileak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Saila eta Innobasque).
 - Hernaniko Udala (esku-hartzeko udalerrria): osasun-aktiboen mapaketa, herritarrek ebaluazioa egiteko tresnak... Solasgunerekin lanean.
 - Bilboko Udala (kontraste- eta ebaluazio-udalerrria): ereduaren adierazleetan aholku ematen du, eta herritarrek ebaluazioa egiteko tresna probatu du – Parte-hartzea baieztatu da.
 - Donostiako Udala: pilotura berandu sartu da (dagoeneko argitaratuta dauden kontratazio-orrietan, bi udalek parte hartuko zutela jartzen zuen, eta ez hiruk hartuko zutela). Hiru proposamenen bidez sartu da prozesura: 1) ikaskuntza-ibilbidea egitea, esku-hartze komunitarioari eta ebaluazioa diseinatzeko prozesuari jarraituz, 2) agenteen mahaiko eztabaida herritarren mailara helaraztea – diseinu-saioak, 3) herritarrek ebaluazioa egiteko tresna probatzea. Oraintxe bertan, auzo bateko esku-hartzean daude zentratuta, eta ez hainbeste transferentzian – Proiektuak aurrera jarraitzen badu, 2020an parte hartzeko aukera baloratu behar da.

2. FASEA: 2019 - 2020

1) IRMren gomendioak (adierazi zein urrats emango diren horiek jorratzeko)

- Prozesuak ahal edo interes handiagoko sektoreekin lotzea – Pilotuetan kontuan hartuko da (osasuna, aurrekontu parte-hartzaileak eta abar)
- Mapaketa aldatzea – Transferentzia-elementuak identifikatu dira. Aztertutako esperientzietan parte hartu dutenen asebetetze-maila ez da jorratuko (mapaketa-lana amaituta dagoelako). Prozesuaren eta K3 konpromisoaren edukien ebaluazio parte-hartzailea egingo da, ordea.
- Instituzionalizatzeko ekintzak. Alde batetik, mailaz mailako eredu adostu bat landu behar da, jarduera berritzaileak egitea edo sarean ikasiz eta entzunez parte hartzea sustatzeko. Halaber, instituzionalizazioari bide emango dioten bi ekintza zehatzetan konprometitu dira konpromisoko erakunde buruak: 1) Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan sariak aldatzea, herritarren parte-hartzea ez ezik jarduera onaren transferentzia bermatzeko partida bat ere aintzat har dezaten. Deialdiaren agindua onartuta dago jada, eta laster irekiko da epea (2019-10-22). Erronka: transferentzia nola jorratu. 2) Aurrekontu parte-hartzaileen emaitzak eta eredu (2019ko pilotua) sare parte-hartzailearekin batera lantzea, zeina Gipuzkoako udalek osatzen duten, ideia eta prozesu berriak abiarazteko.

2) Epe laburrean, konpromisoaren barruan jorratu behar diren erronka nagusiak (adierazi zein diren eta zein neurri aurreikusi diren horiek jorratzeko)

- Instituzionalizazioa: erakunde-mailan ados jartzea eta iLab-en garapena mailaz maila eta modu partekatuan jorratzea, askotariko erritmo eta eredu instituzionalak errespetatuz baina erakunde guztiek modu aktiboan lagunduko dutela eta konpromiso-taldeak laborategia diseinatuko duela bermatuz.
- Pilotuen transferentzia: pilotuak behar bezala betearazteaz harago, horietan prospektiba-, transferentzia- edo ebaluazio-elementuak identifikatzea da erronka, sarean lan egiteak ikaskuntza sortzen duela erakustea. Horretarako, K3 konpromisoaren koordinazio-taldeak (GFA, Eusko Jaurlaritza eta Innobasque) transferentzia-elementuak sortu beharko ditu (irisgarriak eta erabilgarriak), askotariko pilotuen hornitzaileekin elkarlanean.
- Gobernamentu-eredua: erakundeek eta gizarte zibilak onartuko duten eta iLab-en lanari balioa eta eraginkortasuna erantsiko dizkion gobernamentu-eredu bat adostea da erronka, zeina koherentea izango den iLab-en kontzeptualizazio-printzipioekin. Horri begira, konpromisoaren 2. faseko zerbitzuen proposamena aldatuko da (enpresa dinamizatzailearekin), eta saio gehiago erabiliko dira gobernamentua garatzeko. Edonola ere, beharrezko ikusten da konpromiso-taldeak pilotuen jarraipena ere egin ahal izatea (ez ereduak eztabaidatzea bakarrik, baita konpromisoaren probaketa baloratzea ere).

3) Komunikazioa eta kontu-ematea – Nola lortuko da landutakoa luze-zabal hedatzea? Zer egingo da ekarpenak/hobekuntzak irekian jaso ahal izateko, ebaluaziorako tresnak sortzeko eta abar?

- Foro irekia: bi foro ireki egitea aurreikusi da; bata kontu emateko izango da (pilotuak), eta herritarrek edukiak eta hedapen-estrategiak kontrastatzeko egingo da bestea.
- Ebaluazio parte-hartzailea: edukiak zehazteko/kontrastatzeko balioko du, baina baita irekitze-prozedura ebaluatzeko eta parte-hartzea berritzeko laborategiaren ezarpenean hobekuntzak identifikatzeko ere.
- Aurreikusi denez, edukiak eta komunikazioa soildu egingo dira, konpromisoaren 2. faseko ildo estrategiko gisa. Eta ez kontzeptualizaziorako bakarrik, baita ikasteko produktuei eta proiektu pilotuen transferentziari dagokienez ere.